

AURKIBIDEA
LVIII alea - 2006-3/24

AZTERKETA LITERARIOAK

Patxi EZKIAGA. Don Kijote Mantxako eta pedagogia	5
Mikel ATXAGA. Txomin Jakakortexarena, bertso eta olerkiak	23
Patxi SALABERRI MUÑOIA. Intertestualitatean barrena, kontrarreformako kateketika	51
Felix GERENABARRENA ARTAMENDI. Mitoa, literatura eta semiosferak	85
Joxe Ramon ZUBIMENDI. Artetxe, begiramenez	101
Xabier ETXANIZ ERLE. <i>Soinujolearen semea</i> -ren inguruan. Literaturaz eta Ideologiaz	117
Asier BARANDIARAN. Amerikako Estatu Batuetako lau bertsolariren bertsogintza: azterketa salakera bat (II)	129

SORKUNTZA

GARI. Luzea nalz	149
Luis Mari MUJIKA. Barlazlo berriak	153

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Iñaki ZUBELDIA. Haur-liburutegien garrantzia	181
--	-----

ADABAKIAK

Ttanttak. Arrastada literarioak eta beste... ..	201
---	-----

KRITIKAK ETA ERRESEINAK


Juan Ramon MAKUSO. Negutegiaren epeltasuna	219
Juan Ramon MAKUSO. Literaturari lilura	221
Elena MARTINEZ. Euskara-Alemana / Alemana-Euskara hiztegia	223

609.169 (05) EGA

FV

10 ENE 2007

EGAN



Man. Salvador Carrasco. 1944

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETINA"-REN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Salla
3.263 Postakutxatila — DONOSTIA

Intertestualitatean barrena, kontrarreformako kateketika

Patxi SALABERRI MUÑOA

Ezinbesteko izan dituzte kristau zaharrek, arimaren bakea lortuko bazuten, bekatuen bihotzezko urrikimendua, hitzezko konfesioa eta, behin nahitaezko satisfakzioa edota errestituzioa burutu ondoren, berriro huts ez egiteko erabaki garbia.

Dagoeneko zahar samarra bai, baina hain kristaua agian ez den honek bekatu (arin? larri? a, ikuspuntuaren erlatibotasuna!) baten gaineko konfesio jenerala egin premia du. Zeren eta, irarkolako iraxoen ohiko erruduntasuna aitzaklatzat baliatzeko aukera bat ere gabe, bere buruaren gainera bota behar baitu duela zenbait urte Beriainen dótrina zeharo galduta zegoela zioen baieztapen sakrilegoaren ardura.

Aringarri gisa –eta egia zen gainera, aski erabilia baitzuen ordu-rako Utergako abadearen dotrinaren kopia–, eskuzko zirriborroen arteko transkripzio akats horietako batengatik izan zela begitandu zitzaion, baina, horrelakoetan tamalgarriena, kaleratu zenean baino ez zen ohartu paperera isuritako bekatuaz, Utergakoari, dótrina gabe, meza entzuteko tratatua bakarrik utzi ziolarik. Eta *scripta manent* delakoaren testigantza ezabaezinaren poderioz, hor geratu da huts ignominioso hori betiko iltzaturik, euskaraz irakurtzen duten gutxi-txoen espanturako.

Bekatuak bekatu, bada, bihoaz lerro hauetatik erdikonbertso honi dagozkion damua eta penitentzia eta, ahalmenak uzten dion heinean bederen, bekatu hura egin zenetik egundainoko interesen ordaina. Hala biz!

O.- Luzaroan miretsi izan dut antzak eta desberdintasunak atzemateteo gizakioek dugun ahalmen berezi bezain subjektiboa. Zeren eta gehiegi kezkatu gabe ballatzen baitugu gure artean besteren haurrei arbasoen antza ateratzeko ohitura zabaldua, hala egiaz seme edo alaba direnei nola, kiribilaren kiribila, isilpeko sasikoei ere, ustezko sasikoen txanda iristean eguraldiari buruz mintzatzeari ekiten diogun arren. Gizakion patua, inondik ere.

Are zabalduago suertatzen da giza-ohitura hori ustezko seme-alabak idatzizko testu direnean: inoiz ez da falta batzuetan amonaren begiak, bestetan birraitonaren kopeta eta zimurrak..., antzak nonahi aurkitzen dituenik.

Horregatik, larritasun gisako zerbait nabaritu zuen batek baino gehiagok aspaldi A. Irigarayk esan eta Orozek, geroago, berretsi zuenaren aurrean. Irigarayk aurkitu eta aztertu zituen XVII. mendeko dotrina zati batzuk zirela eta (1963), argi mintzatu zen Oroz: "El afortunado autor del artículo coteja los trozos de ese hallazgo [...] con los dos únicos catecismos antiguos existentes en vascuence navarro meridional, el de Juan de Beriain, de 1626, y el de Elizalde, de 1735, constatando que los textos de los tres son diferentes" (Oroz 1980, 15; gurea da letrakera etzana). Eta diferenteak dira, jakina. Baina hain zen handia, hain garbia elkarren arteko distantzia, ahaidetasunik ez aurkitzeko? Hain ote ziren ezberdin, geografikoki eta kulturalki hain hurbil ziruditen testuak?

Egia da literaturaren historiari interesatzen zaiola, irakurle ohar-tuak ondo dakikeen bezala, ez dela antz-desberdintasun hutsetan aritzea, kuxkuxeroen gisan. Alabaina, xedea testuen arteko loturak eta fillazio aztarnak argitzen joatea da, zeren eta, modu xumean izanik ere, argia ekar ballezake horrek behar bezala aztertu gabe dauden hainbat arlotara: testuen harrerarenera, literatur zirkuitoene-ra, intertestualitatearenera berera, etab. Noraino asebate daitezkeen hutsuneak, noraino finkatu loturak, noraino berreraiki eta mintza dai-tekeen gero literatur enborrez edota tradizio-lerroez... beste kontu bat da, ordea.

Guztlarekin ere, genero benetan aparta da dotrina eta katixime-na¹ planteatzen ari garen arlo horretan barneratze-saioren bat egi-

(1) Oro har, sinonimotzat hartu ohi diren dotrina-katiximek, kristauek buruz ikasi beharreko otoitzak eta formulak jasotzen dituzte lehenengo ata-

teko. Hain zuzen ere, berezko duten formatu komun, labur eta ego-kitzeko errazagatik eta, zio anitzak tarteko, hainbat garai eta girotan izan duten hedapen-arrakastagatik, betidanik izan du genero txiki horrek munduan ibiltzeko arintasun berezia eta euskalki berean zein hurbilekoetan umeak sortzeko egundoko trebetasuna².

Hori guztia dela eta, artikulu honek Kontrarreformaren lehen urteetako dotrinatxoak arakatu gogo ditu –nafar lurraldekoak, batik bat–, garai hartan hasi baitzen genero didaktiko hori modu planifikatua garatzen, eredu desberdinak ehuntzen, "tradizio" edo enbor-gisakoak izan zitezkeenak dekantatzen eta, nola ez, baita bide, horrela esan dezagun, "berriak" jorratzen ere.

Eta gurean zailantza gabeko hipotesirik eraikitzen hasteko goiz dirudien arren³, garai eta esparru horietan eskaini nahiko lukete ahalegina honoko lerrook.

Jakina, zuzen-zeharka, kontrarreformaren eraginez trinkotzen eta impermeabilizatzen hasiak ziren muga politiko-administratibo sor-tu berriek literatura katolikoaren zabalkuntzan jokatu funtzioaz ere hitz egin lezake horrek guztiak. Izan ere, Hegoaldeko agintariak testu erreformisten aurrean erabateko debeku-politika finkatu zuten bezala, gerta liteke obra kontrarreformistekin bestelako jokabiderik gerta-tu izana. Baina, nonbait, ederregia litzateke muga-alde bien artean "katixima-trafikoa" egon zela egiaztatu ahal izatea. Iritsi zaizkigun albisteek eta idazlan-kopuru urriak ez bide dute, momentuz, testu-erkaketa arriskutsu zenbaitetik haratago joaten uzten.

lean, eta galdera-ihardespenei bidezko azalpenak bigarrean, lehendabizi-koari "dotrinaren kartilla" deitzen zitzaizolarik. Bestalde, XVI. mendeko hainbat katiximaren hasieran irakurtzen eta idazten ikasteko abezedario-silabario mo-duko bat eransten zen, "kartilla" izenekoa, hain zuzen, katiximarekin harre-man zuzenik ez zuena (ik. Leizarragaren ABC delakoa edota Betolazaren dotrina). Hori horrela, eta kontzeptu-nahasketarik sor ez dadin, artikulu hone-tan zehar otoitz eta formula hutsak biltzen dituen katiximaren lehen atala izendatzeko "dotrinatxo" hitza erabiliko da.

(2) Mitxelenak zioen bezala, "este género de literatura religiosa, basado en la traducción y muchas veces por desgracia en el calco literal, acaso haya seguido en algún caso, aparte de la evidente inspiración romance, traducciones a otros dialectos" (1955: 1988, 826).

(3) Ikus Salaberri 2004.

1.- Besterik eman dezakeen arren, hasieran bederen ez dirudi malkartsuegia gure dotrina-katiximek erakusten duten ikuspegi orokorrak⁴.

Ale pretridentino garbi bat (Etxepareren "Doctrina Christiana" izeneko bertso-sorta), erreforma protestantearen pare bat fruitu (Leizarragaren *ABC, edo christinoen instructionea*⁵ eta hark berezko nortasunik gabe -beste obra batl erantsia baizik- kaleratu zuen *Catechisme*) eta, azkenik, Trentoko abiapuntuarekin⁶ laster tradizio aski egonkor bilakatuko zenaren zitu ugariak (Antso Eltsokoren galdutako dotrinatik⁷ hasita, egungo katixima modernoeneraino) izan dira,

(4) Halere, asko zehaztu behar da oraindik euskarazko dotrinen zerrenda. Zeren eta, esate baterako, Zubiarena *hit paraden* egoteko moduko dotrinatzat hartzen den bitartean, sistematikoki ahazten da (ezagutuko al du inork?), agitalpen propiorik gabe, Argaignaratzek bere *Devoten Breviariora* delakoaren amaieran erantsi zuen zinezko *Doctrina christiana* (1665).

(5) Egia esan, zalantza bat baino gehiago izango genuke (hiru, gutxienez) liburu hau "Catecismos españoles del XVI. Catecismos ortodoxos" delako sailkapenaren barnean kokatzeko eta, halaber, egilearen izena "Lizárraga" bezala emateko, gaztelaniazko kateketikaren historiari buruzko liburu garantzitsuenean agertzen den bezala (Ikus Resines 1997, 195).

(6) Oinarrizko abiapuntu doktrinala esan nahi da, zeren eta 1566ra arte ez baitzen argitaratu Trentoko kontzilioaren katixima ofiziala, hots, "Pio V.arena" deitu eta parrokoel zuzendua zihoakiena (*Catechismus ex Decreto Concilii Tridentini*) eta eredu izan zitekeena. Jakina den bezala, Kontzilioak tokletako hizkuntzetara itzultzeko agindu espresua luzatu zuen, gotzaiel gonbit zehatza egin zitzaielarik itzulpenaren zehaztasuna eta fidelitasuna zain zitzaten (Julia 1998, 372). Dena den, frantsesera, alemanera, portugesea, poloniera eta itallera berehala itzuli baziren ere, gaztelaniara ez zen berrehun urte beranduago arte itzuli. Hori zela eta, gaztelera mintzo zirenen artean eskasa izan zen katixima ofizial haren eragin zuzena. "Sin embargo, otra cosa muy diversa es la influencia indirecta, el trasvase de criterios, la inspiración de fondo, el modelo no citado pero tenido en cuenta, la redacción de otro catecismo cualquiera en el que se tiende a la fidelidad doctrinal, o se sigue la misma pauta para los contenidos dogmáticos, o la inspiración conceptual se rige por lo escrito en fórmula propuesta por Trento" (Resines 1997, 189).

(7) Eztabaida interesgarria Eltsokoaren katiximak planteatzen duena ere: baldin 1561ean argitaratu bada haren *Doctrina Christiana*, ikustekoa zatekeen noraino den "postridentinoa", hots, Trentoko kontzilioaren fruitu zuzena, "ortodoxoa" esan nahi baita, edo noraino han-hemenaka amastutakoaren (Ikus 6. oharra) ekoizpen "originala". Gogoan har bedi Trentoko katixima ofiziala, *ad parochos* delakoa, bost urte beranduagokoa dela. Edonola ere,

azken batean, behialako euskaldun menderagaltzak fededun otzan bihurtzeko edabearren funtsezko osagai idatzizkoak.

Ez dira, edonola ere, haien arteko erlazio-kidetasunak gehlegi aztertu, beharbada nabariegia edo ziruditelako. Zeren eta ezaguna baita "trentoar uholdean" bi izan direla inguru hauetako katekizazioaren bizkarrezur gisa erabili diren eredu nagusiak: Gaspar Asteteren *Doctrina Christiana* eta Jeronimo Ripaldarena omen dena⁸. Zinez

katoliko bihurtu hurren zeuden europar lurraldeetan barrena erabiltzen ari ziren katiximen arteko batzuk, handik urte batzuetara Trentok hartuko zuen ildokoak suertatu ziren. Horietatik ospetsu eta erabilienetakoak, gero santu egingo zuten Pedro Kanjis edo Canisius jesuitaren dotrina antiprotestanteak izan ziren (goi mailako ikastetxeetarako *Summa doctrinae christianae* mardula hain zuzen, 1555koa da; lehen letretako ikasleentzako *Catechismus minimus* delakoa 1556koa da Resines iritzi -Resines 1997, 187-eta 1566koa Juliarenez -1998, 403-; haurrentzako *Parvus catechismus catholicorum* izenekoa, berriz, 1558 edo 1559koa da). Eta berariaz aipatzen dugu Canisiusen kasua, zeren eta 1554an, gutun batean, Inazio Loiolakoak Vienako Teologia Fakultateko dekanoa zen hari egia katolikoaren dotrina ezarri ahal izateko lan-egitarau hirukoitza agindu zion: haur eta gazteentzako katixima bat, non egia katolikoaren laburpena jasoko baitzen; gehiegia landu gabeko apaiz eta elizgizonen erabilerarako liburuxka bat, sinestunei erakutsi behar zitzaizena bilduz; eta, hirugarrenik, kultuentzako teologia eskolastikoaren *Suma* bat. Loiolakoaren enkargua beteaz izatean, Trenton indar erabakiorra erakusten ari zen lagundiak berak zabaldu zuen katixima Europar barrena. Berriak ere erabilia da (Ikus haren *Doctrina*, 1621, 4). Bestalde, Martin Azpilkuetaren aipamen batean oinarritutako eztabaida bukatutzat jo du Goñik, Nafar Doktoreak aipatzen duen dotrina Eltsokoarena dela ziurtatzen baitu: "et ante circiter 35. annos quidam Cantaber pius, et doctus [...] parique utilitate Christianismi provincialium, quae lingua Vasconica (quae remotissima est a Latina, Itala, Hispana, et Galla) [...] haec quatuor ("aita gurea", "agur maria", "kredo" eta "salbea" hain zuzen), et totam summam doctrinae Christianae vertit in linguam Vasconicam simul et docuit, quod utinam ante quingentos et mille annos factum fuisset" (*Miscellaneuncentum de Oratione*, 1586: 1616. Colonia, III, 525). Honela itzultzen du Goñik: "Y hace unos 35 años un cántabro piadoso y docto, [...] y con igual utilidad del cristianismo de la provincias de habla vasca (lengua que nada tiene en común con las lenguas latina, itallana, española y francesa), [...] tradujo y enseñó estas cuatro cosas y todo lo más importante de la doctrina cristiana, lo cual ojalá se hubiera hecho mil quinientos años antes" (apud Goñi 1995, 18-19).

(8) Resinesen arabera, Astetek 1576an idatzia zuen bere *Doctrina christiana*; horrezaz gain, 1589 *Interrogaciones para la Doctrina Christiana* izeneko bat argitaratu zuen, hain zuzen ere 1591n Ripaldak argitaratuko zuen *Doctrina* bezalakoa zena, berdin-berdina esan nahi baita: "no hay duda posi-

esan liteke testu horietan gorpuztutako eskemak (moldaketak, doikuntzak eta eranste-mozketak gorabehera) markatu duela egun arteko kateketika katolikoa. Euskarazko tradizioa, zer esanik ez, horiez da elikatu; edo, zehatzago esateko, horiek itzuli ditu etengabe, Hegoaldean batik bat⁹.

Geografi banaketa orokorrak baliatuz gero, Mendebaldekotzat har daitezkeen lurraldeetan Betolazaren *Doctrina Christiana* (1596) da ezagutzen dugun lehena, dotrinatxoa halere, ez katixima (dotrinatxoa eta azalpenak, alegia). Bizkaierazko lehen katixima hirurogei urte beranduago arte ez da iritsiko (Kapanaga, *Exposición breve de la doctrina christiana*, Bilbo, 1656). Aski panorama idor eta uniforme¹⁰, beraz, Kontrarreformaren argitalpen plangintzaren bihotzean barneratzen hasteko.

lido horretan, nafar hiriburutik igarotzen diren koordenadak zertxobait emankorrago edo ditugu, besteak beste, XVI. mendearen lehen hamarkadetaraino erresuma izandakoak artean han biltzen zituelako, guri interesatzen zalgunagatik bederen, eliz eta kultur-guneak eta literatur ekoizpena kaleratzeko azpiegiturak eta jendeak, hauen artean, Adrian Anvers eta Tomas Porralis bezalako inprimatzaileak lehenago, Carlos Labaien bezalakoak geroago.

A. Anversen inprimategian argitaratu zen, esaterako, Eitsokoa-lan lana; Labaienean, berriz, anonimotzat dugun dotrinatxoa (1614) eta Beriainen idazlan biak¹¹.

ble. El texto es idéntico" (Resines 1997, 246). Ondorioz, dio autore berak, "se puede afirmar [...] que Astete no sólo escribió el «Astete», sino también el «Ripalda», y que Ripalda no escribió el «Ripalda»" (*idem*). "Ripalda" delakoa, beraz, "bigarren Astetea" baino ez litzateke.

(9) Ezlin, ordea, mugaz bestaldeko bestelako erreferentziak ahaztu: Pouvreaux Richelleurenarekin euskaraz egindako bertsoa (1656), Harostegik Lavieuxvillerenarekin prestatutakoa (1733), etab.

(10) Are uniformeago, baldin Arana Martijaren iritzia zuzena bada: "Kapanagak Betolazaren testua erabili zuen bere itzulpena osatzeko, eta askotan hitzez hitz hartu zuen 60 urte lehenagotik itzulita zegoen Doctrina" (Arana Martija 1986, 508).

(11) *Tratado de como se ha de oyr missa* (1621) eta *Doctrina christiana* (1626) izenekoak.

2.- Ekialdeko¹² lurraldeetan irudikatu ipar-hego lerroari erreparatuz gero, aitortu behar da Kontrarreformaren hasiera irristakorretan, osorik-edo, Beriainen dotrina eta Materrerena baino ez ditugula, bi-biak muga politikoaren alde banatan burutuak, ekialdeko euskalkietan argitaratu katixima kontrarreformisten lehen urteetako egoeran barneratzeko. Bi horiek, Satrustegik XVI. mendekotzat hartu zituen formulak¹³, 1614aren inguruan inprimatutako dotrinatxo baten parte zenbait¹⁴ eta, noski, otoi-z solteren bat edo beste, artikuluan zehar aipatuko direnak.

Mugatuégia, beraz, jolaslekua, baina abiapuntu interesgarria erkaketen jolasari ekiteko.

Beraz, liburu gisa kronologikoki lehenengoa kaleratzen izan zenari helduz gero, eta aieru hutsen putzuan erortzeko arriskua badago ere, egingo genuke -apustutan aritu behar, ez baitzaigu alerik iritsi!- Materreren *Doctrina Christiana* (1616) liburuaren lehen edizioaren egituraketa ez zegoela Astetek berrogei urte lehenago prestatua zuen *Doctrina Christiana* katiximatik urrutiegi. Geroago Europar hizkuntza askotara itzulia, lehen "astete" delakoak Materrek bigarren edizioan salatzen zuen eragozpen bertsua aurkezten bide zuen, hots, "Doctrina

(12) Geografikoki kokatzen laguntzeko asmo soila duen Ekialde hitz honen esanahia, besterik adierazten ez den bitartean, lapurtera eta nafarrera garaiaren esparrura mugatzen da eskuarki, euskal geografiaren erdialdekotzat hartzen den gipuzkeraren eta mendebaldekotzat hartzen den bizkaieraren sortaldeagoko mutur gisara.

(13) Datazlo-irizpideek, halere, zalantza bat baino gehiago sor dezakete, izan ere, "la determinación de la fecha del documento [...] no se basa únicamente en el dato material de la publicación del libro en el que se inscribe [...] sino que se ha tenido en cuenta, sobre todo, la naturaleza del documento, una oración básica del devocionario cristiano cuya formulación institucionalizada y estable no suele ser producto improvisado del momento..." (Satrustegi 1990a, 37). Baina arrazuarra ere ohartu zen arazoaz, Aresoko formulaz ziharduten hiru artikuluetatik lehenbizikoak "Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI" eta "El Credo en versión vasca del s. XVI" titulatetik hirugarrena "El Ave María y la Salve en un documento vasco del s. XVI" titulatzera igaro baitzen (gurea da letrakera etzana); artikuluan, dena den, ez zen irizpide-aldaketa hartaz ezer aitortzen.

(14) Aurrerantzean, "Labaien" bezala identifikatuko dugu, 1614an Carlos Labaien inprimatzaileak argitaratutako liburu baten azalean erantsita agertu baitzen dotrina zati hori (Salaberri, prentsan). Gogoan har bedi Beriainek argitaratzaile berberari eraman zizkiola gero bere idazlanak.

eta Dotrinaren deklaratioa" nahasirik eskaintzen zituela¹⁵. Izatez, Asteteren lehenengo hura nolakoa zen jakiteko, Materrerren kasuan bezalatsu, ondoko edizioei begiratu behar zaie, konklusio logikoena honakoa delarik: "parece que hay que dar como seguro, por los vestigios existentes en la mayor parte de las ediciones, que la disposición tipográfica del escrito primitivo [Asteterena, alegia] proponía una oración o formulario, y a continuación lo explicaba con una serie de preguntas relacionadas con lo presentado. Es decir, que la disposición posterior, según la cual las primeras páginas estaban ocupadas por la relación completa de los formularios (lo que se denominaba «Texto de la doctrina cristiana»), no fue respetuosa con la forma original" (Resines 1997, 240)¹⁶.

Guztiarekin ere, antolamendu "nahasi" hori daramaten *doctrina* modukoak etengabe itzuli, argitaratu eta zabalduko ziren arren¹⁷, Materrek beste aukera bat egin zuen alpatu arazoa gainditzeko, Ripaldarena omen zen "bigarren astetea"-rena bezalakoxea hain zuzen. Bai batean, bai bestean, jakina da, oso garbi bereizten ziren *doctrina* eta *doctrinaren deklarazioa*¹⁸.

(15) "Beha egotu naiz ea cer erraiten çuten iendec nic ce[n]balt urthete duela esquiribatu nuen Guiristinoaren Dotrinaz, eta ediren dut ecen batçuen artean hartçaz cebilan solhasa, eta erraiten cena cela Doctrina eta Doctrinaren deklaratioa ez elkarrequin, baiña beregainqui eta bereciqui bi partetan ibeni behar cirela. Bada halaco hori atseguin eguiteagatic, eta neroni ere eztela gaizquiago idurituric, bereci ditut elkar ganic, eta egulin bi parte" (Materre, *Doctrina...*, 1623, xxv-xxvi or., zenbatu gabeak).

(16) Nahasketaren inguruko kezka berdintsua agertu zuen beste hainbat katxima-egilek ere. Diego de Ledesma dugu ospetsuen arteko beste bat. Haren *Doctrina christiana* delakoaren eskuizkribua (c. 1567-70), esaterako, ez dator bat ondoko argitalpenekin: "las ediciones posteriores [...] transplantaron los formularios de las oraciones a un primer apartado titulado 'Texto de la doctrina cristiana' [...], dejando para un segundo momento las explicaciones o 'declaraciones'. Sin embargo, en el manuscrito los formularios de las oraciones estaban integrados armónicamente en el discurrir del texto" (Resines 1997, 252).

(17) Irazusta, Mendiburu (Burgos, 1747), Kardaberaz, J. A. Mogel, etc.

(18) Halere, ez zituen Materrek "ohiko" atal guztiak "Declaratio"-tik atera, "bekatu venialac" barkatzekoena, esaterako, barruan utzi baitzuen (ik. Materre 1623, 167-168).

Dotrina bitan banatzeko premia eta egituraketaz ari gara, ez bestez, nabarmena baita haien arteko urruntasun testuala idazlan bien lehen parteko materiaren (dotrina-dotrina jasotzen duen atalaren) antolamenduan bertan. Ripaldak, esate baterako, ondozkatze zehatza eskaintzen dio irakurleari¹⁹. Materrek, berriz, gai-banaketa aski propioa erakusten du²⁰.

Baina, esan bezala, banaketaren premia eta antzolatzeke irizpideaz ari ginen. Ikasi beharreko muina azalpenetik bereizteko beharraz, alegia, horrek egiten baititu bat, ez bestek. Eta planteamendu horrekin bat egiten du, halaber, beste elizgizon batek ere, Hegoaldekoa honako hau.

Izan ere, Utergako erretore Juan Beriainek argitaraturik utzi zuen *doctrinak*²¹ bi zati nabarmen ditu bai euskarazko bertsioan eta bai

(19) Honako hau, alegia: ohikoak ziren prolegomenoa (hots, "Todo fiel cristiano/ es[tá] muy obligado/ a tener devoción/ de todo corazón...") eta otoitzak ("Aita gurea", "Agur Maria", "Gloria", "Kredo" eta "Salbea"), eta, ondoren, Trentok ondo finkaturik utzi zituen aginduak eta sineste-gaiak: 1) "Jaungoikoaren Aginduak", 2) "Eliza Ama Sainduaren Aginduak", 3) "Eliza Ama Sainduaren Sakramentuak", 4) "Fede Artikuluak", 5) "Obra Misrikordiakoak", 6) "Bekatu kapitalak eta haien aurkako bertuteak", 7) "Arimaren etsaiak", 8) "Bertute teologialak eta kardinalak", 9) "Arimaren potentziak", 10) "Gorputzeko zentzuak", 11) "Espiritu Santuaren Dohainak", 12) "Espiritu Santuaren Fruituak", 13) "Zorionbideak", 14) "Bekatu arinak barkatzekoak", 15) "Gizonaren Azkeniak", 16) "Konfesio orokorra" eta 17) "Kontrizioa".

(20) Honela agertzen dira "Doctrina christianaren laur parte principale-nac, cein baitira Ar[t]iculu fedezcoac: Oracinoac, Manamenduac, eta Sagaramenduac" (Materre, 139; aurreko oharrean Ripaldaren antolamendurako erabiliz zenbaki eta atalen erreferentzia egiten dute ondoko zenbakiek): lehendabizi otoitzak ("Gure Aita", "Agur Maria", "Kredo", "Salbea") eta gero Agindu eta Sakramentuak: 1, 2, 4, 3. Azkenik, bestelako atalak, garrantzi gutxiagokoak direnak: 8, "Perfekzionario kontseiluak", 5, 11, 13, 6, "Espiritu Santuaren kontrako bekatuak", "Mendeku eske dauden bekatuak", "Bertzeren bakatu gu ukiltzen gaituztenak", 7 eta 15. Ondozkapena gorabehera, fedearen aldetik txikiak baino ez direnak geratu zaizkio Materre lehen zati horretan zerrendatu gabe (9, 10, 12 eta 14); horiek eta konfesioari dagozkion biak (16 eta 17).

(21) Ezaguna den bezala, izenburuaren ondoren argitaratu zituen obra biek daramate erantsita *escrita en Romance y Bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona* luzapen argigarria, izan ere, biak kaleratu baitziren gaztelaniaz eta euskaraz idatzita.

gaztelaniazkoan²²: batetik, dotrina bera ("dotrinatxoa", alegia) eta, bestetik, dotrinaren azalpena galdera-ihardespenez apailatua.

Edo era ausartago batean adierazteko, Beriain Ripaldak bere katiximan markatutako irizpide nagusietatik abiatzen dela dirudi²³, nahiz eta pare bat aldiz aldaketaren bat egiten duen testuaren logika tematikoari heltzeko. Hori da, esaterako, "Fedezko Artikuluak" Kredoaren ondo-ondoan jartzeko arrazoia eta ez Ripaldak kokatzen dituen lekuan (Sakramentuen eta Miserikordiazko Obren artean). Hurrengo salbuespena "Bertuteak" izenekoak atzerago desplazatzea izango zen, hain zuzen ere Gorputze Zentzuak eta Espirituaren Doaiak izenekoan artera. Gainerakoan, Beriainen euskarazko bertsioko Ripaldarena omen den "orden"-ean mantentzen da²⁴.

3.- Egiaztatzeko dago ea zernolako dotrinak eta katiximak eza-gutu zituen Juan Beriainek berea ontzeari ekin zionean. Baina ezer berezirik adierazten ez badu ere, bidezkoa dirudi inguruetan ia best-seller bilakatzen hasiak ziren astete-ripaldak ezagutzen zituela imajinatzeak.

Dena den, alpatu, hiru katixima alpatzen ditu Utergakoak. Garrantzitsuena, "Al Letor" izeneko hitzurrean²⁵, Kontrarreformaren

(22) Gogoratu, dena den, lehen zatia antolamendua desberdina dela argitalpen elebidunaren hizkuntza bietan. Halere, eta besterik espero zitekeen arren (euskal irakurlea ohituegi dago besteek ez dituzten anabasa eta akatsak pairatzen), euskarazko atala aski "ondo" taxutua dagoen bitartean, gaztelaniazko bertsioko "logika" gehiegirik gabe atonduta agertzen da.

(23) Ezin ahantz daiteke, halere, dotrinaren "deklarazioa" hasten denean, Beriainek "astete" zaharraren eskema dialogatua darabilela, hots, bigarren asteteak baztertua zuen lehenengoko "maystrua" (liburuan "M") eta "dicipuloo"-ren artekoa (Ik. Beriain 1626, 96 eta 126-127). Maisuaren ordeztu, "Aita" agertuko da galdegile gisa Ripalda delakoan.

(24) Adierazi bezala, ez da horrela gertatzen gaztelaniazko bertsiorekin. Hartan harrigarria da "anabasa", batez ere seigarren txataltxotik aurrera: Ripaldarenean 11, 12 eta 13. postuetan zihozten formulak, Beriainen gaztelaniazkoan 6, 7 eta 8. tokietara igarotzen dira; 6. lekuan egon beharko lukeena, 9.era; 7.ekoa 13.era; 8.ekoa 10.era, etab. Gainera, azken hiru txataltxotik edo direnak ("Bekatu arinak barkatzekoak", "Azkenkiak" eta "Konfesio orokorra") ez dira agertzen gaztelaniazkoan.

(25) Horren aurretik, "Catecismo Romano" delakoaren beste erreferen-

lehen katixima ofiziala hain zuzen²⁶: "[...] escribió el dicho Concilio [Trentokoak] la orden, y como, y lo que se ha de enseñar, sacando a luz el Catecismo Romano, por mandato del Papa Pio Quinto de felice recordacion, y con su aprobacion, libro de tanta autoridad, y importancia para todos, como se sabe, declarando en el quatro cosas, que contiene la Doctrina Christiana [...]"²⁷. Beste biak dotrinaren barnean egiten dituen azalpenetan alpatuko ditu: "como dize el Padre Maestro fray Domingo de Soto, en la Doctrina que escribió: y assi sólo pone estas palabras que yo he dicho el illustrissimo Cardenal Belarmino, en la Doctrina que sacò por mandato del Papa Clemente Octavo" (*Idem*, 7 or. ifrentzuan)²⁸. Ez da, guk dakigula, besterik alpatzen²⁹.

Alta -eta honako hau, hein batean, irakurritakoez, ereduez edota izandako eraginez ere mintza liteke-, aiatu hitzurrearen amaieran ez da falta obraren taxuketari buruzko oharrik, Beriainek garbi baitio nolako egitura eman nahi dion liburuari: "Pongo lo primero el texto de la Doctrina, y despues su explicacion por Preguntas, y respuestas" (zenbakirik gabeko xxviii eta xxix or.).

Zinez esan daiteke, bada, Beriain funtsean bat datorrela Materren (eta, era berean, Ripaldaren eta beste hainbaten) liburuak erakusten duen planteamenduarekin³⁰.

rentzia bat (alpamena, hobe) aurki daiteke "A Christo N. S." izeneko eskaintzaren barruan.

(26) Fede alorrean zalantzari zirrikiturik ez irekitzeko, Trentoko Kontzilio-koak dira Beriainek egiten dituen erreferentzia nagusiak ere.

(27) "Al Letor" hitzurretik jasoa, zenbakirik gabeko xiii eta xiv or.

(28) Katiximatzat hartua izan bada ere, Domingo de Sotok idatzitako *Summa de Doctrina Christiana* (Salamanca, 1552) elkarrizketez osatutako lan teologikoa zen, eta, ondorioz, irakurketa zailakoa jende xumearentzat. Elizgizonen prestakuntzarako egina zen. Bestalde, Roberto Bellarmino jesuitak Klemente VIII.aren aginduz idatzitako dotrinak hiru izan ziren. Inguru hauetan ospetsuen eta Beriainek erabili bide zuena *Doctrina cristiana breve da impararsi a mente* (Roma, 1597) delakoaren bertsioko areagotuaren itzulpena izan zen, hots, *Declaración copiosa de la doctrina cristiana* (1615).

(29) Ez ditugu aintzat hartu katixima ez direnak (moral-konpendioak, etab.). Esate baterako, Martin Azpilkuetaren *Enchiriridion seu Manuale confessoriorum et poenitentium* (Lyon, 1575), Francisco de Tolodoren *De institutione sacerdotum* (Lyon, 1599), etab.

(30) Ikus lan honetako 15. oharra.

Komenigarri deritzogu horretaz ohartzeari, zeren eta *Dotrina Christiana* batek³¹ lau gauza izan behar zituela agintzen baitzen Berriainek berak aipatzen duen Pio V.aren katiximan: "En el primer lugar, las cosas de [...] que se han de creer, *explicando* los misterios del Credo. En el segundo los Sacramentos que se han de recibir, y como se han de recibir. En el tercero, los Mandamientos de la ley de Dios, que de necesidad se han de guardar. En el cuarto, las cosas que se han de desear, esperar y pedir a Dios, *explicando* el Pater noster" (xiv or.; letrakera etzana gurea da).

Eraz antzeman daitekeenez, eredu erromatarrari irmo jarraitu izan balio³², batera emango zituzkeen Berriainek dotrina-puntuak eta azalpenak. Alabaina, ez zuen horrela jokatu, Materreri hurbileko jendeak edo iradoki omen zion bezala baizik.

Nolanahi ere den, beti jar liteke zalantzan horren guztiaren esanahia, zeren, gorago adierazi bezala, antzak eta kidetasunak, arraroenak izan arren, iturri berdintsuak edatetik ere etor baitaitezke.

Haatik, Berriainen eta Materreren arteko loturen susmoak haien Dotrinetan sartu ahala areagotzen dira. Edo, zehatzago nahi bada, darabilten hizkuntzan barneratzean eta erakusten dituzten paralelismoak eta egiturak erkatzean.

Distantzia dialektologikoak ukatu gabe, eta Materrereana Sarako lapurtera baldin bada³³, hizkera hartatik hain urruti geratzen ez den gol-nafarrera bezala identifika daiteke Berriainena³⁴.

(31) Inguruko hizkuntzetako dotrinen ildotik, E. Materreren liburuak ere *Dotrina Christiana* zuen golburu. Berriainenak ere *Dotrina Christiana* agertzen du izenburu nagusizat, nahiz eta, gero, *Dotrina Christioarena* gisa identifikatu zuen euskarazko atala.

(32) Gogoratu, dena den, ez duela Berriainek hitzurrean agindutakoa zehazkiro betetzen, bai gaztelaniazko bertsioan, bai euskarazkoan ez balta azalpen modukorik falta, eta ez beti gai, pasarte eta toki berdinetan erantsiak. Esate baterako, "Aita gurea"-ri egiten dion iruzkina (1626, 85) ez da "Padre nuestro" delakoaren ostean agertzen, ez eta "Los Mandamientos de la ley de Dios" delakoaren amaieran egiten dituen kontsiderazio luzeak (*idem*, 3-6) "laungoycoaren legue sanduaren Mandamentuac"-en atzean ere.

(33) "Baiña nahi dut laquin deçaten halacoec nic hiltzuntça hunetan daquidana Saran ikassia dudala" dio Materrek; eta eransten du zertxobait aurrerago: "ez paitaquit nic hangoa balcen" (Materre, 1623; zenbakirik gabeko xiv-xv or.)

Halere, hurbiltasun dialektologiko hutsari zor lekiokkeen hizkuntz kidetasunaren inpresioaz gainera, beste era batez ere balora litezke urrun-hurbilak. Onar bekigu, hori erakusteko, garai hartako otoltz eta formula batzuk, esku desberdinekoak, begien aurrean jartzea eta halen arteko antz eta desberdintasunen jolasean aritzea.

4.- Dotrinatxoetan ezinbestekoa den "Agur Maria"-rekin has gintezke, garai hartan ale gehien utzi zituen otoltza baita hau.

1607an argitaratu zuen Baltasar Etxabe zumalarrak pare bat urte lehenago burututako liburu ospetsua³⁵. Bertan, Iruñeako elizbarrutia osatzen zuten lurraldeetako *Agur Mariaren* "bertsio ofiziala" omen zena tartekatu zuen³⁶:

"Ave Maria, Gradaz betea, jauna da çurequin, Vedeicatua cera, andre guztien artean, Vedeicatua dà, çure Savel Virginaléco fructua, Iesus. Sancta Maria, jaun goicoaren amà, erregu eçaçu gugatic, çerren guera Vecatariac, eguinbidl ala" (*Discurso...*, 58 or.).

Bukaeran nabarmena da Pedro Canisiok asmatua omen zen eta aurrerantzean otoltzean fosildurik geratuko zen "nunc et in hora mortis nostrae" esaldiaren falta³⁷. Nonbait, transkripzio akatsaz bai-

(34) Berriainek, dena den, honela deskribatzen du bere euskara mota: "yo escrivo elque se habla en Pamplona, Cabeça deste Reyno, y Obispado de Navarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas las partes" (Berriain, *Tratado de como se ha de oyr Missa*, 1621, "Al Lector" hitzurrearen lefrentzuan).

(35) *Discursos de la antigüedad de la lengua cantabra Bascongada*, Mexiko, Henrico Martinez, 1607.

(36) Hots, "el Ave Maria, segun que el Obispo de Panplona, con divino acuerdo tiene ordenado que se enseñe en estas Provincias, junto con toda la doctrina Christiana, que siempre hasta estos tiempos se avia enseñado en latin y romance" (1607, 58; gurea da letrakera etzana). Jimeno Juríok gogorarazten duen bezala, mendearekin batera hasi zen eliza katolikoa katekizazioa euskaraz egiten eta jendea derrigorrezko aginduak luzatzen: "El comienzo del siglo XVII coincide con el estreno del episcopado de Mateo de Burgos en Pamplona (1600-1606) y con el de Pedro Manso en Calahorra-La Calzada. En este momento se inicia la política episcopal exigiendo el uso del euskera en la catequesis y en el ministerio" (Jimeno Jurío 1997, 108).

(37) *Suma* delakoan (1555) argitaratua zuen arren, hedapen handiagoa izango zuen haurrentzako katiximan (*Parvus* edo *minor* delakoan) ez bide zuen 1570era arte erantsi (Satrustegi 1991, 120).

noago, bertzioaren zahar-kutsuaz mintzatuko litzateke gabezia hori³⁸. Antzeko zerbait esan beharko litzateke geroago ekialdeko euskalkien ezaugarri gisa geratuko zen aditz oinaren erabilera dela eta. Hortaz, elementu guztiok gogoan hartuta, formularik zaharrena dirudi gipuzkerazko honek.

Kronologikoki lehenago argitaratua baina formulazioan moder-noagoa, mendebaldeko "agurmarien" aitzindari modura aurkez liteke Betolazaren hau³⁹:

"Ave-Maria, gracias betea, launa da çugaz, benditea zara çu andra gustien artean, eta benditoa da çure sabeleco frutua IESUS. Santa Maria, laun goycoaren Amea, erregutu eguiçu gu becatarioc gayti, orayn, da gueure eriozaco horduan. Amen IESUS" (Betolaza, 4 or., zenbatu gabea).

Illo beretik abiatu zen Kapanagarena ere (1656), aurrekoarekiko aldaera esanguratsu bakarria "bedeincatea/vedeincatua" bikotea delarik⁴⁰:

"Ave Maria, gracias betea. launa da çugaz, bedeincatea çara çu andra guztien artean, eta vedeincatua da çure Sabeleco frutua, Iesus. Santa Maria, laungoicoaren amea, erregutu eguiçu gu becatarioc gaiti, orain, eta, gueure erioçaco horduan. Amen Iesus" (Kapanaga, 5 or., zenbatu gabea).

Hizkuntz enbor berekoa edo izanik, N. Zubiak mendearen amaieran (1691n) Donostian inprimaraziko zuen *Doctrina Christiana* eman zuen bizkaierazko aldaerak ere bazuen, halaz ere, Etxaberen bertzio "ofizial"-arekin⁴¹ kidetasunik⁴²:

(38) Etxabe 1573an abiatu zen Mexikorantz. Hara joan aurretik ikasitako otoiça papereratu ote zuen? Egia da gutuneriaren bitartez edota geroago joandakoen bidez izan zezakeela Iruñeako gotzainaren politikaren berri eta liburuan eguneko albiste gisa Isla zezakeela hori, nahiz eta euskaraz idatzi egin zitekeela erakusteko adibidea gazte denborakoa izan.

(39) Trentoko katixima ofizialaren gaztelaniazko bertsiarik gabe, tokian tokiko hizkuntzetan moldatutako katiximak bultzatu zituzten gotzaiek eta sinodoek, Pedro Manso gotzainaren aginduz burutu zen Betolazaren *Doctrina Christiana en Romance y Basquence* (Bilbo, Pedro Col de Ybarra, 1596) izenekoa horren adibidea izan zelarik.

(40) Ikus lan honetako 10. oharra.

(41) Antonio de Venegas de Figueroa, Iruñeako gotzalak 1608an luza-

"Ave Maria, gracias betea. launa da zugaz. Bedeincatea zara zu andra gustien artean. Bedeincatua da zure sabel virginalco fructua, Iesus. Sancta Maria, laungoicoaren amea, erregutu egulozu gu becatarioc gaitic orain eta gueure eriozaco orduan. Amen Iesus" (apud T.A.V., 162 or.).

Nabarmentzeko puntuak: egun hainbat tokitan hainbat hitzekin gertatzen den bezala (santua, -ue/santea, -ia, -ie, etab.), generoa desberdintzeko beharra ikusten da mendebaldeko formulatan (bedeincatua/bedeincatea, benditoa/benditea), ekialdekoetan atzeman-go ez dena. Horrezaz gainera, darabiltzaten eskemak eta ereduak direla eta (sarrera-amaierak: "Ave Maria", "Amen Iesus"; "laungoicoaren amea", "erregutu egui[o]çu", etab.), enbor -tradizio?- berekotzat aurkez litezke hirua, eta ez bakarrik, bistan denez, euskalki berekoak izateagatik. Hortaz, eta printzipioz (egia baita formula guztietan egiaztatu beharko litzatekeela hipotesia), joera aski komuna azaltzen da mendebaldeko kateketikak utzi dizkigun ale bakanetan.

Distantziak distantzia, badirudi antzeko zerbait esan daitekeela ekialdeagoko (ipar zein hegoko) lurraldeetan -euskalkien berezitasuna- gorabehera edo barne, nahi den bezala- otoiç hori idatzita agertzen den moduengatik.

Berialnek, esate baterako, *agurmariaren* bertzio hau eskaini zizkion bere liburuan:

"laungoycoac salva çayçala, Maria gracias betea launa da çurequi. bedeycatua çara emazten artean: eta bedeycatua da çure sabeleco frutua Iesus Santa Maria laungoycoaren ama, otoyç eguiçu gu becatarien gatic oray, eta gure heriotçeco orduan, Ala dela" (85 or.).

Ikus daitekeenez, Beriainena⁴³ oso hurbil legoke "Labaien" delakoan agertutako "agurmari"-tik (katixima inprimatu baten ataltxo baina ez den hartan azaldutakotik, hain zuzen):

tutako idazki batek dioenez, dotrina "se ha hecho imprimir en vascuence y en las demás lenguas que se usan en este obispado" (Mitxelena 1960, 61). Hortaz, aurrerantzean beste bat izango zen katixima "ofiziala".

(42) Etxaberenak bezalaxe, Zubiarenak latinezko jatorritik hurbil -fossildu-rik?- iraurarazi zituen bi hitz: "sancta" eta "fructua".

(43) Ustezko antzak, noski, ezin ditu ahaztu Ierreetan antzematen diren luzerak eta hutsuneak, ez eta testu bereko bestelako pasarteekin izan ditza-keten analogiak ere.

"langoyco...c salva çayçala Maria.....tea,
 laun.....tien ar-
 tea..... fructua, les.....
otoytç eguiçu gu becatariengatic or.....re heriotçeco orduan, Ala dela"⁴⁴.

Eta nahi beste prebentziorekin bada ere⁴⁵, 1607an Iruñeako elizbarrutian "ofizial"-tzat ormen zuten bertsioetik⁴⁶ baino hurbilago bide dira aurreko biak Materreren honako honetatik:

"Agur Maria, graciaz bethea, launa da çurequin: benedicatua çara emazteen artean, eta benedicatua da çure sabeleco fruitua, Iesus. Maria saindua, laincoaren ama, eguiçu othoitç gu bekatoreoc gatik, orai eta gure heriotçeco orenean. Biz hala Salbatçaillea" (*Doctrina...*, 2-3 or.)⁴⁷.

Aurreko otoitz guztien ezaugarri formalei emandako lehen begiradan nabarmen geratzen da bi multzoen arteko aldea: bata, mendebaldekoa, trinkoagoa eta latinezko bertsioetik hurbil geratu zena, eta bestea, jatorrizkotik urrunduz, "euskaldunago" edo bilakatu nahi duena otoitza. Hor daude, esaterako, mendebaldeko latinezko "ave maria" eta "amen" formulen ordez "agur maria" (edo, malzago, "Jaungoikoak salba zaitzala, Maria" kalkoa⁴⁸) eta "ala dela" edo "biz hala";

(44) Hemen eta hurrengoetan eskainiko diren bertsioak Irigarayk (1963) argitaratu argazkietan oinarritu dira. Gure transkribapena, halere, ez dator beti bat bestetan eman izan denarekin (ikus Salaberri, prentsan). Honako transkripzioa dela eta, aurreko bertsioarekiko erkaketa errazteko ezarri dira eten-puntuok (espazio-erakusgarri huts, beraz); berdin jokatuko da hurrengo pasarteetan ere.

(45) Sarritan azpimarratu da ezin originaltasun gehiegi bila daitekeela honelako literaturan. Edonola ere, gutxienez tradizio-lerro desberdinak (ez beti, ezinbestean, dialektuari -bakarrik- lotuak) mugatzen joateko baliabideak eraketa.

(46) Horrek areagotu baino ez luke egingo Etxaberena aurreko mendekotzat hartzearena. Edo, bestela, ustezko lehen bertsio ofizial haren iraupen laburrak mintzatuko litzateke, dakigunagatik, Berriainena hainbat nafar herrirentzako erdutzat jo izan baitzuen.

(47) Ia bertsio berdin-berdina da Argalgnartzek 1665ean argitaratu zuena: "Agur Maria, graciaz bethea, launa da çurequin: benedicatua çara emasteen artean, eta benedicatua da çure sabeleco fruitua, Iesus. Maria Saindua Jencoaren ama, eguiçu othoitç gu bekatoreengat orai, eta gure heriotçeco orenean halabiz" (1665, 103).

(48) Dialektologi zioek ere bultzatuta, Astete-Ripaldaren bertsioetatik itzulitako agurtze-eredu honek luzaroan iraun du gure artean (ik. Bonaparte 1869).

"erregutu"-ren ordez, "otoitz egin". Horiekin batera, euskalkien senaren araberrako ezaugarriak ere agertzen dira multzo bien desberdintasuna areagotuz: "andre"/"emazte", "eriotzako"/"heriotzeco" eta abar⁴⁹.

Konparazioen jolasa, edonola ere, erdi hautsita geratzen zaigu Aresoko "Ave Maria" tartekatzen denean, hainbat ezaugarri ekialdekoekin lerrotzeko diren bitartean, beste hainbatek mendebaldekoekin bat egiten dutela baitrudu:

"Agur Maria graciaz betea Jauna da çurequin çarade bedicatua andre guztien artean, bedicatua da çure Sabel virginalco fruitua Iesus bedicatua; Sancta Maria, Jangoicoaren ama, erregutueguloçu gure Jaunari, ba[r]cadaquigula guri becatarioy orayn eta gure eriocaco orduan alaviz. Jauna gure Salvadore" (ap. Satrustegi 1991, 110).

Bistan da hasiera-amaierek ("Agur"⁵⁰ eta "alaviz") ekialdeko eta, areago, Materreren enborrekin lotzen duten bitartean, "çure Sabel virginalco fruitua" eta "eriocaco orduan" bezalakoek Etxaberengandik Zubiarenganainoko ildoan jarriko luketela otoitza. Izardi desberdinez elikatutako enborra, beraz. Edo, beste modu batez nahi bada, finkatu egia zegoen mendebaldeko bertsioen gainean egindako berrikuntza-ahalegin ekialdearra nonbait. Izan ere, administratiboki ekialdeko lurraldeetako den Aresok ere mendebaldeko lurraldeetarantz jotzen du topografiagatik, euskalkiagatik eta bestegatik.

Nolanahi ere den, lehendabiziko, eta behin-behineko, galdera da ea dialektoen hurbiltasunak berak trinkotu ote zuen katiximen "tradi-

(49) Egia da, halere, Berriainen "Jaungoikoa" mendebaleko/hegoaldekoa dela eta "bedeycatua"-k Etxaberena bezalakoak direla.

(50) Zehazteke dago noizkoa izan daitekeen agurtze forma hau (1617an ere erabili ote zuen Materrek?). Dena den, berriagoa da latinezko "Ave" delakoa baino, eta esan liteke formulak datatzen laguntzeko ere balio duela, inoliz alderantzizko argudioak erabili badira ere. Ildo horretatik, Aresoko agur-maria eta bestelako otoitzen aurrean, lehendabizi datatuak izan ziren zinezko datu gehiegirik gabe (ikus lan honetako 13. oharra) eta, ondoren, aurkitzen ziren gisa honetako "berrikuntzak" garairako "testimonio precoz" bezala interpretatuak izan ziren (ikus Satrustegi 1991, 110). Guztiarekin ere, horko agurtze-era hori, ezer izatekotan, Aresoko dotrinatxo XVI. mendekotzat ez hartzeko beste arrazoi bat gehiago izango litzateke.

zlo" desberdintasuna ala bestelako faktorerik izan ote zen tartean (elzbarrietan banaketa zaharra, esaterako).

5.- Ez dugu, tamalez, beste horrenbeste erreferentzia gairontzeko otoitzei dagokienez. Baina berriro ere susma liteke formula-kidetasunik nafar erresuman, iparretik hegora zihoakeen lerro lau-so baina bateratzaile moduko baten fruitu bailitzan, eta, besteak beste, Materre eta Beriain kide egingo zituzkeena hainbat arlo eta ezaugarritan.

"Aita gurea" izan daiteke antz-desberdintasunak norainokoak ziren baloratzeko bigarren otoitza⁵¹. Eta Materrena eta Beriainena, bata bestearen ondoan jartzea baino hoberik ez:

"Gure Aita ceruetan çaudena, erabil bedi sainduqui çure icena; ethor bedi çure erresuma: eguin bedi çure borondatea, çeruan beçala lurrean ere. Iguçu egun gure eguneco oguia: eta barka diatçaguçu gueure çorrac guc guregana çordun direnei barkacen derauztegun beçala. Eta ezçaitçagula utz tentamendutan errortce-

(51) Ezin jakin daiteke —erkaketa-lan gehiagoren faltan baikara— inori ezkatuzten ote zaien Materrenenak Leizarragarenarekin duen antza. Mentalitate kontrarreformistarentzako errespetu eza adierazten zuten hilakako formak behar bezala neutralizatu ondoren, kalbindarretetik hurbiltxo geratzen da Materrenen otoitz katolikoa: "Gure Aita ceruetan aicena. Sanctifica bedi hire icena. Ethor bedi hire Resumá. Eguin bedi hire vorondatea ceruán beçala lurrean-ere. Gure eguneco oguia iguc egun. Eta barka ietzaguc gure bekatuak, nola guc-ere offensatu galtuztenér barkatzen baltrauégu. Eta ezgaitzala sar eraci tentationetan: baina delivra gaitzac gaitzetic [...] Amen" (Leizarraga 1571: 1990, 1398). Antzeko zerbait esan liteke Leizarragaren "Christinoen fedeco articuluac" delakoak Materrenen "Credo in deum" delakoarekin dituen paralelismoez ere, lehen partean batik bat. Leizarragak "Sinesten dut lainco Aita bothere-gucitaco ceruären eta lurraren Creagalea baithan. Eta Iesus Christ haren Seme bakoitz gure launa baithan: Cein concebitu içan baltá Spiritu sainduaganik: Sorthu Maria virginaganic..." (idem 1398-1399) idazten duen bitartean, Materrek honela ematen du bere kredo: "Sinesten dut lainco Aita bothere guztia duena, ceruären eta lurraren eguilea baithan. Eta Iesu-Christo haren seme bakoitz gure launa baithan: cein concebitu baltcen Espiritu sainduaren obraz, sorthu cen Maria Virginaganic..." (Materre 1623, 3-4).

ra: aitcitic beguira gaitçaguçu gaitcetic. Biz hala Salbatçaillea" (Materre, 1-2 or.)⁵².

"Ayta gurea, ceruetan çaudena, santifica bedi çure yçena; etorri bedi çure Erreñua guregana eguin bedi çure vorondatea, çeruan bezala lurrean ere; gure egun orosco oguia eman draçaguçu egun, eta barca draçquiguçu gure zorrac, guc barcaçen dizquiotegun bezala gueuren zorduney; eta ezçayçagula utci tentacioan erorcera aytçetic libra gayçaguçu gayzetic. Ala dela" (Beriain, 84 or.).

Edozein gisan, bistan da, Beriainen bertzioak hurbildik darraikio Labaienen liburuaren azalean agertutakoari:

"..... Ceruetan çaudena, santifica bedidi çure erreytua. E.....borondatea, Ceruan beçala lurreaneman draçaguçu egunçorrac, guc barcaçrdun ey. Eta ezçayt.....era; aitcitic, begui..... Amen"⁵³.

Nolanahi ere den, ustezko "tradizio" batez mintzatu bagara ere, agian egokiago litzateke irakurketez hitz egitea; edo, beste era batean adierazteko, euskal idazle zenbaiti euskaraz argitaratutakoa ez zitzaizela ezezagunegia pentsatzea. Gorago aipatu den "katixima-trafikoa"-aren esparruko kontua, hain zuzen, liburuetan isurtzen diren kontzeptuen joan-etorriez hitz egin lezakeena agian.

Ildo horretan, Beriainek badu Materrenen lerroetarantz hurbiltzen duen kontzeptu alorreko arazotxo bat. Gogora bedi, esate baterako,

(52) Ildo honetakotzat har daiteke Argaignaratzek bere *Dotrina Christianan* ematen duena ere, formula ezertan aldarazten ez duten nimitzokeria zenbait gorabehera, Materrenen bertzio bera baita: "Gure aita Ceruetan çarena, Erabil, Bedi Sainduqui çure icena: Ethor bedi çure Erresuma: Eguin bedi çure Voron[n]datea Ceruan beçala lurrean ere; igucu egun gure eguneco oguia: Eta barkha dietçagutçu gure çorrac. guc guregana çordun direnei barkhatcen daroztegun beçala: Eta ezgaitçatçula utç tentamendutan erorce- ra: Aitcitic beguira gaitçaguçu gaitcetic. hala bizi" (Argaignaratz 1665, 103).

(53) Letrakera etzanean: gaizki ikusten edo ulertzen diren hizkiak, eta arrazol desberdinetan -espazioa, aztamak...- oinarritutako berreraikitzeak. Berdin jokatu da hurrengo pasarteetan ere.

dotrina gehienek zehatz-mehatz bereizten duten kontzeptu pare bat, Beriainek euskarazko bertsioan bereiztu izan ez zuena. "Ceñacea" eta "santiguacea" aditzen bereizketari zegokiona, alegia. Lehen kapituluaren hasieran kristauen seinaleak bi motakoak direla esan ondoren, lehena deskribatzeari ekiten dio, izendatu ere egin gabe; bigarreneira iristen denean, berriz, "cer da çeñatçeä?" galdetu eta ohiko katixima gehienetan "santiguatzea"-ri dagokiona deskribatzen du segituan, kristautasunean funtsezkoak diren bi kontzeptu desberdin (eta, Ripalda-Astete guztietan hasiera-hasieratik bereizten direnak) zeharo nahasita utzirik⁵⁴.

Mekez jakin daiteke zein izan den nahasmendu horren arrazoa, baina arazoa euskaraz bakarrik dauka Utergakoak, gaztelaniazko bertsioan ondo baino hobeto bereizten baititu biak. Ondorioz, irakurleari burura dakiokkeen hipotesia zera da: Beriainen nahasmendu horren iturburua Materrereña bezalako idazlanen batean egon daitekeela..., akaso -garbi da hipotesia aieru hutseraino hedatzea ekar lezakeela honek-haren testua izan zuelako begien aurrean berea ontzeko unean.

Baina bestelako aztarnekin batera baloratuko ez balitz, berriro diogu, beste aieru bat baino ez litzateke honako hau ere. Hortik, beraz, gehiegi luzatu nahi ez genukeen beste zenbait pasarte eta konparazio hona garralatzearena.

6.- Aipatuak ditugu "Aita gurea" eta "Agur Maria" otoitzekin egile bakoitzak eman zituen bertsioak. Materreren "Credo in Deum" erka genezake orain Beriainenarekin:

"Sinhesten dut lainco Aita bothere guztia duena, ceruaren eta lurraren eguilea baithan. Eta lesu-Christo haren seme bakoitz gure launa baithan: cein concebitu baitcen Espiritu sainduaren obraz, sorthu cen Maria Virgïnaganic: pairatu çuen Poncio Pilatusen ma-

(54) Ez du horrela jokatzeko Kapanagak, nahiz eta une batez gauzak nahasten dituela dirudien. "Y por tanto te has de acostumbrar a signar, y santiguar; Haciendo tres Cruçes; la primera en la frente..." esaldia honela ematen du euskaraz: "eta alan eguin bear doguz Curuçearen señaleagaz, zehazen gareala, iru + [gurutze, alegia] leeliengoa becoquian..." (Kapanaga 1656, 3).

nuaren azpian, crucificatu çuten, hil cen, eta ehorci çuten: iautsi cen ifernuetara: laiqui cen biciric hirurgarren egunean hillen artetic: ikan cen cerueta, iarrinc dago lainco Aita bothere guztia duenaren escuñeco aldean: handic ethorrico da hillen eta bicien iulgatcera. Sinesten dut Espiritu saindua baithan, Eliça Catholica saindua, Sainduen partaletasuna, bekatuen barkamendua, haraguiaren piztea, bethiere iraunen duen bicitcea. Hala da salbatçaillea" (Materre, 3-5 or.)⁵⁵.

"Sinestatçen dut laungoyco ayta gucis poderosoan, çeruaren, eta lurraren creadorearen, eta lesu Christoren aren Seme bacoçaren gure launaren baytan: çeyn concebitu baytçen Espiritu Sanduaren obras, eta jayo çen Virginia Mariaren baytatic: passatu çuen Passio doloroscoa, Poncio Pilato juezaren azpian crucificatu çandu çen yll çen, eta orci çuten: jautssi cen ifernuetara, yrugarren egunean illetaric resuscitatu çen: igan çen çeruetara, eta jarrinc dago laungoyco Ayta gucis poderosoaren escuyan, andic etorrico da vicien, eta illen juzgaçera: sinestatçen dut Espiritu Sandua baytan, dela Eliza sandu Catholicoa, Sanduen comunicacioa, becatuen barçacioa, araguiaren resurrecia, eta vicitce seculacoa. Ala dela" (Beriain, 85-86 or.)⁵⁶.

(55) Nonbait Materrek lehen ediziorako erabili zuen antolamendu nahasia Irudikatzen duelako, bitxia egiten da Argaignaratzek eskaintzen duen dotrina. Are bitxiagoa haren "kredo" zatikatua, ohiko bereizketa gabe "Artikulu fedezko" gisara eskainia eta Materrek "Dotrinaren declaracioa" delako atalean (1623, 53-74) dagien desglosearen estilora aurkeztua: "Gal. Cembat dire articulu fedezcoac? / Iha. Hamabi / Gal. Cein dire hec? / Iah. Lehenbicicoa da sinhesten dut lenco aita bothere gucia duena baithan, Ceruaren, eta lurraren Creatçaillean. / Bigarrena, eta lesu Christo haren seme bakoitç gure launa baithan. / Hirurgarrena, cein concebitu baitcen Espiritu Sainduaren Verthutez, sortu cen Maria Virginia ganic. / Laugarrena, pairatu çuen poncio Pilatusen manuaren azpian, crucificatu çuten, hilcen, eta ehorci çuten. Borçgarrena, iautsi cen ifernuetara, eta hirurgarren egunean laiquicen biciric hille artetic. / Seigarrena igan cen Ceruetara, iarrinc dago lenco aita bothere gucia duenaren escuñeco aldean. / çazpigarrena handic ethorrico da Vicien eta hillen iulatcera. / çorcigarrena sinhesten dut Espiritu Saindua baithan. / Bederatçigarrena Eliça catolica Saindua, Sainduen partaletasuna. / Hamargarrena bekatuen barkhamendua. / Hamacagarrena haraguiaren bista. / Hamabigarrena betiere iraune[n] duen vicitcea. / Hala biz" (Argaignaratz 1665, 102).

(56) Ohi bezala, oso hurbil geratzen da Beriainen bertsioa 1614koa dirudien testu inprimatu zatikatutik: "Sinestatçen dut laungoyco ayta g[...][...]soan ceruaren eta lurraren creado[...] lesu Chris[...] seme bacoç-

Azken "sinest(atz)en dut" delakoak inesiboaren beharra du bertsio bietan. Baina "Espiritu Saindu"-ari dagokiona "baitan" batekin konpontzen bada ere, perpausaren beste osagai guztiak erdal bertsioen antzera taxutzen dituzte gure autoreek ("creo en el Espíritu Santo, [en] la comunión de los Santos, [en] el perdón de los pecados..."), erdal preposizioaren balioa euskaratzerakoan lehendabiziko *baitan* delakoan bukatuko balitz bezala: "sinhesten/sinestacen dut Espiritu Sa[]nduaren baitan/baytan, Sainduen partaletasuna [ø], bekatuen barkamendua [ø]..."⁵⁷. Alabaina, ez bide ziltzaion egokiegia iruditu perpausa Beriaini, bestela ez zukeen "dela Eliza sandu Catholicoa" idatziko; "dela" horrek, bada, trantsizio moduko zerbait eskainiko zion Utergako apaizaren belarriari, gero inesibo markarik gabeko sintagmak onartu ahal izateko.

Ildo horretan, gogoratu behar da beste modu batean jokatu zuela lehenago tradizio berekotzat hartu dugun 1614ko liburuaren azalean agertutako kredo fragmentatuak⁵⁸: "[...]nestatzen dut

tca[...] launar[...] [...]n concebitu bai[...] [...]ren obraç: layoçen Virgina Maria- [...]aric: passatuçuen [...] dolozcoea Pilato juezaren az[...] crucificatu çen [...]tçicçen, jautssiçen iffe[...]etara, yrurga-[...]ean illetaric resuscitatuçen, ygangçen [...]a eta jarriric dago langoyco Ayta po[...]en escuñean: nondic etorrico bayta [...] bitçlen Juzgatçe[...] [...]nestatzen dut Es-[...]dua baytan, E[...] [...]ndu catholican, [...]omunioan bec[...] [...]ioan, çen[...] [...] culaco [...]]" (Irigaray 1963, hirugarren argazkia, testuinguruagatik ulertu bide daitzkeen hizkiak adieraztekoerabili da letrakera etzana).

(57) Ohiko bilakatu zen eskema hura (sinesten dut... *baitan* / -gan + -ø, -ø, -ø) geroko katixima eta dotrina ospetsuenetan. Ikus, esate baterako, Mendibururena omen den Burgosko 1747ko dotrina larramenditarra (Lakarra 1986, 540) edota Kardaberazen *CristinauDotrinea* (1974, 401) eta *Christauaren Doctrina* (*idem*, 460). Eskema horrekin jokatu arren, "trantsizio" moduko bat baliatzeko beharra izan zuen Leizarragak, hots, aditza birritan errepikatu, bakoitzari kasu desberdinetan zeuden sintagmak erantsiz: "Sinhesten dut Spiritu saindua baitan. Sinhesten dut Eliça saindu universal [ø]. Sainduén communioea [ø]. Bekatuén barkamendua [ø]. Haraguiaren resurreccioea [ø]. Vizitze etemala [ø]" (Leizarraga, *idem*, 1399). Bide berdina hautatu zuen Elizaldek ere: "Sinestacen dut Espiritu Sanduaren baitan. Sinestacen dut Eliza Ama Sandu Catholicoa, Sanduen Comunioa, becatuen barcacioa, Araguiaren erresurreccioa, eta vicitçe secularcoea" (Elizalde 1735, 7).

(58) *Symbolum Apostolorum diversis nationum linguis expressum* (Roma, Zannetto, 1614) izenekoan agertu "Kredoa"-k ere ez zuen horretan

Es[...]dua baytan, E[...]ndu catholican [...]omunioan bec[...]ioan [...]]" (ikus Irigaray 1963, hirugarren argazkia)⁵⁹.

7.- Beriainen euskarazko "Salve" delakoari buruz bakarrik daki-gu -edo, hobe esanda, orrialdearen amaieran hurrengo orrialdeari eta otoitzari sarrera ematen zieten lau hizkietatik inferitu dezakegu-haren "Agurmaria" bezala hasten zela, hots, "laun[goycoac salua çayçala]" formularekin. Tamalez galdu egin dira ondoko bi orriak eta gatzelaniazkoa baino ez dugu erreferentzia.

Nolanahi ere den, orain arte erabili dugun erkaketa-logikari helduz gero, balirudike Beriainenak Labaienen 1614ko testuan agertzen

zalantzarik uzten: "Sinistasen dut Jaun poderosoaren vaytan Creatorearen ceruaren eta lurraren. Eta Jesu Christo vere seme unigenito, jaunaren vaytan. Sein ucandu baysen concevituric Spiritu Santu jaunaren obras: eta jayo sen virgen andre Dona Mariaren vaytatic. Eta padecltu çuen Pontio Pilato manuaren asplan, Crucificatu ucandu sen, yl, eta orci ucandu sen. Eta jausi sen infernura: yrugarren egunean Resuscitatu sen ylen vitartetic. Eta ygan sen ceruetara: eta dago jarreric jaun poderosoaren escunean. Eta andica etorrico da vicien eta hilen jusgacera. Sinistasen dut Spiritu Sanduaren vaytan. Elysa Catolica sanduaren vaytan: Sanduen comunioean. Pecatu guçien parcamentuan. Araguiaren resuscitatean. Eta vici perdurablean. Amen" (apud Mitxelena, 1964, 163).

Ildo berekoak, eta nafar erresumako adibide gehiago baliatzeko, Bonaparte printzeak aezkerara, zaritzuerara eta erronkierara itzularazitako katiximaren hiru itzulpenok: "Ginestatzaut Espiritu sanduein baitan, Eliza dandu catolicoeln baitan, sanduen comunioan, becatuen barcamenduan, araguein resurreccioan eta beti iraunen duen vician" (1869, 6); "Ginesten zut Espiritu sanduaren baitan, Eliza sandu catolicoaren baitan, sanduen comunioan, becatuen parcamentuan, araguiaren resurreccioan, eta beti iraunen duen vician" (1869, 7); "Sinestan dud Espiritu saintuan, Eliza saintu catolicuan, saintuen comunioan, becatuen parcamentuan, araguiaren resurreccionian eta betic irainen dion vician" (Bonaparte 1869, 7). Antzeko jokamoldea ikusten da erronkierazko *Doctrina Uscaraz* delakoan, nahiz eta hemen, harrigarriro, lehen elementua den inesibo markarik gabe doana: "Cala sinestian diezu Espiritu Saindu, Elizama Santa Catholican, Santien Comunioan..." (Gomez 1991, 385).

(59) Pasarteak osatuz gero, honela irakur liteke testua: "sinestatzen dut Espiritu Sandua baytan, Eliza Sandu catholican, Sanduen comunioan, becatuen barcacioan..."

denaren ildokoa izan beharko zuela, nahiz eta, egia esan, geratu diren aztarnengatik, ohiko "salbea" baino laburrago –eta zaharrago?– ematen duen azken bertsio honek⁶⁰. Hutsuneak hutsune, honela dio 1614koak:

SALVE/⁶¹

perança langoycoac salvaçayç.....
yeç gaude Euaren.....
na gaude suspraç, ay.....
lle nigarrezco onet.....
çure begul misericor.....

(60)Ikus, konparaziorako, Elizalderena: "Jangoycoac salvazalzala Erreina misericordiaren Ama, vicice, dulzetasuna, eta gure esperanza. Jangoycoac salvazalzala: zure gana deyes gaude, Evaren Seme desterratuoc, suspiros, ayes, eta negarres negarresco valle ontan. Ea bada gure Abogada itzulizazu gure gana zeure vegul misericordiasco oyec: eta desterru onen buruan eracutsidazaguzu zeure sabeleco fruitu Jesus bedecatu ori. O Clementissimal O Piadosal O Dulze Virginia Maria Jangoycoaren Ama Sandua, otoiz eguizu gure gatic, mereji dezazquigun Jesu-Christoren prometimetuac, Amen Jesus" (Elizalde 1735, 7; Labaienenean falta uste direnak nabarmentzeko jarri ditugu letrak etzanik). Ildo horretan, bitxia da halaber Satrustegik (1991, 121) Areson jasotako bertsioa, "agurmariari" dagokion "gure erioçaco orduan" eransteaz gainera, amaiera ere ezohikoa da: "Agur erregina andre ama misericordiaz betea, çu çerade viçiça dulçea, gure esperança, Agur gueyago andrea çure deyez gaode Evaren hume desterratuoc, curi emayten diçugu gure negarra, lagrimazco valle onetan, eabada advogada gurea converti içaçu cure misericordiazco veguioc gugana, Eracusl eguiguçu gure erioçaco orduan Jesu Christo cure fruitu bedicatu O clemenciozco ama, o pladadezco vigena, O dulce et(e)n guabe beti Virginia Maria çauizgula valla, alaviz Jauna gure salvadorea". Guztiarekin ere, zuzendu egin beharko litzateke Satrustegiren irakurketa hori azken hitzetan ("O dulce et[e]n guabe beti"), berak "g"-tzat hartzen duena "s" hutsa balta, esku berak idatzitako kredo formulako "spiritu" hitzean agertutakoa bezalakoa (Satrustegi 1990, 207). Horrela zuzenduz gero, ez dago "eta" juntagailuaren irakurketa borbaxtu beharrik: "O dulce eta suabe beti Virginia Maria...".

(61) Agurtze-moduagatik (agurmariari agertzen den bera), Berlainen ildokotzat har liteke "Salbea" ere. Tamalez, Utergakoaren ilburuan desagertu egin ziren formula horri zegozkion orriak. Ezagutzen ditugunen artean, Elizalderena (1735) da gehien hurbiltzen zalona (ik. hurrengo oharra). Ezer azpimarratzekotan (zahar kutsua?), Betolazaren formulari agertzen den sintagma batekin duen antza litzateke: hemengo "[va]lle nigarrezco onet...", Betolazaren "erri negarrezco onetan" azaltzen balta (ik. Arana Martija 1986, 517).

re gana, eta desterru.....
guçu Iesus çure sabe.....
O clementea, o.....
Maria. Amen.

"Agurmaria" tratatzean esan den bezala, hemen ere balizateke nolabaiteko ezaugarri zenbait formula gehienak bi enborren ingurura eramateko: ohiko sarrera-amaierak, "misericordiazko" vs "misericordiaren", maillegetarako joera vs euskal hitzetarako, etab.

Oro har, esan liteke gaztelaniazko originaletatik hurbil daudela hegoaldeko formula gehienak eta, ohi bezala, "euskaldunago" edo agertzen dela Iparraldeko bakarra, ahalegin handiago erakusten baitu formularen hizkuntza sinesleentzat egokitzeko. Honela eman zuen Materek:

"Açur Erreguina misericordiaren ama. bicitcea, ezitasuna, eta gure esperança agur. çure gana gaude oihuz Evaren seme desterratuoc: Cure gana gaude hatsbeherapenez, ayez, eta nigarrez hara[n] hunetan. Ea bada gure arartecoa, çure begui misericordiazco horiec itçul itçaçü gure gana: Eta Iesus benedicatu çure sabeleco fruitua eracuts diçaguçu desterru hunen ondo[n]. A bihotz-bera, a urricalmendutsua, a Maria Virginia ezti" (Materre, *Dotrina...*, 5-6).

Betolazaren lexikoa, berriz, gaztelaniazko originaletatik hurregi gertatzen da (1596):

"Salve Regina, misericordiazco Arrea, vicizea, eta dulçura. Salve esperança gueurea, çure gueyey gagoz Evaen hume desterratuoc, çuri emayten deusuguz zizpuruac negarr eguiten dogula erri negarrezco onetan. Ea bada Andra Abogada gueurea, biortu eguizuz gueugana zeure vegul misericordiosoc, eta desterru au ygaro ta, eracusçu IESUS zeure sabeleco Frutu benditoa. O Clementissime. O Piadosea. O Birgina Maria Dulçea. Erregutu eguçu gu gaytic laun goycoaren Ama Santea, dignu izangaytean Iesu Christo prometimentuen. Amen IESUS." (ik. Arana Martija 1986: 517).

Kapanagarenak, hein batez bederen, haren ildotik jotzen bide du (1656):

"Salve Regina. Erreguina, eta ama misericordiazcoa viçiça, eta dulçurea, salve esperança guerea çure deiez gagoz. Ebaren hume desterratuoc çugana gagoz çizpuruca, llantu, eta negar eguiten dogula, negarrezco errionetan eta bada erregutalea viortu eguçuçuz

gugaña çeure misericordlazo veguloc. eta desterruau lgaro eta eracucuçu Iesu Christo çeure saveleco frutu vedeincatua ò Clemenciasco ama ò piadossea ò dulce veti Virginia Maria lau[n] goicoare[n] ama santea erregutu eguiçou gugalitc mereçidu dai-guçan christoren prometimentuac. Amen Iesus”.

Ohi bezala, eta barka erredundantzia, zenbat eta ekialdeagorantz Jo, bertsioa ere originaletik (zertxobait bederen) urrunago eta euskal senaren arabera egokituago. Isastik jasoa (c. 1620) lekuko:

“Salve Regina, Ama misericordiazcoa; vicitza, eztitasuna, esperanza gurea, salve. Zure deyes gaude, Evaren hume desterratuoc; zugana suspiratcen dugu laiduz, eta negarrez, negar ybarr onetan, malcozco arane onetan. Ea, bada, gure Abogada, zure begui urricarizti orlec Iraultzazu gugana, eta Jesus bedelcatua, zure sabeleco frutua, gurí desterru au ezquero eracuscuzu. O bioz bera, o pletatetsua, o ezti Virgiña Maria! Erregu ezazu gugatic, Jaungoicoaren Ama, diñu garaden Cristoren prometimentuen. Amen, ala biz” (Mitxelena 1964, 164; 3.2.12).⁶²

Nabarmentzekoa, dena den, Betolazaren “dignu izangaytean Iesu Christoen prometimentuen” eta Isastiren “diñu garaden Cristoren prometimentuen” formula-amaiera bitxien paralelismoa, tradizio aski finkatua aldarrikatzen bide duena, bai formulok enbor bertsutik atereak izan direlako, bai haien arteko harremanengatik elkarren antzak hartzera Iritsi direlako.

8.- Gorago aipatu “trafiko”, “tradizio” edo, nahi bada, “kidetasun hutsen” lan-hipotesiak garatzeko, esanguratsuak izan litezke Beriainen “Jainkoaren hamar aginduak” ere Materrek idatzitakoekin parekatzea⁶³.

(62) Edizio eta kopia desberdinetan agertutako “variantes de algún interés” bezala eransten ditu gero Mitxelenak honako hauek: *desterratuac, degu, urricaristi, irauli izatzu, Jesu, frutua, desterro au, Virginia, Virjiña, Ama Santa, dinu arraden Christoren prometituen* (bertsioen berri izan nahi duenak Jo beza idazlearen aipatu obra eta atalera).

(63) Lehen euskal liburuak jasango zuen gaitzespenez gainera, formatu “poetikoegia”, errimaduna eta kantagarria, eman zlen Etxeparek gero Trentok gehiegi aldatuko ez zituen “Haman manamenduyac” izenekoei, inongo kontrarreformista kartsuren eredu gertatu ahal izateko: “Adoreçac langoyco

Jakina, Beriainenak askoz modu laburragoan aurkezten badira ere, antz gehiegirik ez ote duten otutzen zaio irakurleari lehenengo begiradan; euskal enbor bereko adaskak ez izateko, esan nahi baita.

Materre mintza dadila lehendabizi:

“Iaincoaren manamendu sainduac dira hamar.

Lehenbicicoa: Iainco bat dela sinhetsiric, hura bera gauça guztien gaiñetic onhets, adora eta cerbitça deçagula.

Bigarra: arneguric, çinic, edo iuramenturic vanoqui eta premia gabe eztaguigula.

Hirugarrena: igandea eta bertce bestac beguira ditçagula.

Laurgarrena: gueure burhasoac ohora ditçagula.

Bortzgarrena: nehor hil ezteçagula.

Seigarrena: haraguizco obraric ezcontçaz campoan eztaguigula.

Çazpigarrena: deus ebats ezteçagula.

Çortcigarrena: Nehori falsertaric erauz eztiçogula.

Bederatcigarrena: bertceren senharric edo emazteric desira ezteçagula.

Hamargarrena: lagunaren onhasunari guthicia ezcaquitçala” (Materre, 7-9)

Berlain mintzo da orain:

“Iaugoycoaren legue sanduaren Mandamentuac dirade hamar [...]

Lembicicoa Iaugoycua honra, eta adora deçagula.

Bigarra iuramenturic vanoro eztaguigula.

Irugarrena ygandea, eta iayac beguira diçagula.

Laurgarrena, ayta, eta ama honrra dizagula.

Bortzgarrena, yor ere ill ezteçagula.

Seygarrena, Luxuriasco becaturic eztaguigula.

Çazpigarrena, deus evatssi eztaguigula.

Çortcigarrena, yori falso testimonioric erayqui eztrazogula, eta ez guezurric erran.

Bedrazigarrena, lagunaren emaztea desea ezteçagula.

bat onhetz oroz gaynetic/ Haren ycena ez lura causa gabe vanoqui/ Ygandiac eta vestac sanctifica devotqui/ Ayta eta ama ohoraçac vici yçan lucequi/ Ehor erho eztaçala ez etare gaycetsi/ Morc veria vayeçila emazteric ez hunqui/ Verçerena eztaçala ebaxi ez eduqui/ Fama gayciç eztemala lagunari falsuqui/ Bercen emazte alabac ez desira gayxtoqui/ Eçetare unhasuna lecot beti Iustoqui” (*Linguae Vasconum Primitiae*, 2 plegua, 6. orrialdea).

Amargarrena, berçeren gauzaric deseaz eguzagula⁶⁴ (Berlain, 88-89)

Sobran daude hitzak. Halaz ere, ezin gara beste konstatazio bat egin gabe aldendu. Puntu honetan ohiko ereduak gogoko ez eta baztertu nahi izan zituela pentsa genezakeen arren, Beriainek gaztelaniazko bertsioa (bere-berea bide dena) erabil zezakeen iturri bezala; gaztelaniazko testua sortzeko erabili zuen buru-eskema bera esan nahi baita. Guztiarekin, hartan ez bezala jokatu zuen euskarazkoa moldatzeko unean. Hartan ez bezala, eta ohiko ereduetatik urruti, alegia. Zeren eta gaztelaniazkoan, lehendabiziko aginduan izan ezik –“no adorar” esaten baitu–, singularreko bigarren pertsonan ematen ditu aditz guztiak, ohiko katiximetan legez hain zuzen: “no juraras”, “santificaras”, “honrraras”... Euskarazko bertsioan, bistan da, pluralerako lehen pertsonan agertzen dira forma guztiak. Materrearen liburuan bezalaxe⁶⁵.

Eta hemen gaudelarik, eta zabaldu diren iritzien kontra bada ere, berriro esango genuke Beriainen bertsioa oso hurbil geratzen dela 1614 baino lehenago inprimatutako nafar katixima anonimotik:

[...] legue sanduaren [...]entuac.
 [...]nduaren mandamentuac, Chris[...]ratu bearcuenac.
 [...]en legue sanduaren manda[...] amar dira:
 [...] gauça gucien gañean langoycoa onetsi dezagula.
 [...]amenturic vanoro eztaguigula.
 [...]ygandeac eta jayac beguira [...]
 [...] aytá eta ama onrraditçag[...]
 [...]rrena, yorr // etzte[...]
 [...]
 [...]
 [...]garrena yori [...]ztrazogula.

(64) Ikusten denez, Beriainen testuan, azken bi aginduetan tokiz aldatuta agertzen dira “bertzeren” eta “lagunaren” hitzak. Horrezaz gainera, hamargarren aginduan aditz forma erraztea erabaki bide zuen, aurreko aginduen formula bera erabiliz: “desea eztezagula”. Gainerakoetan aditz forma berdinak darabiltzate.

(65) Pluralerako lehen pertsonaz baliatzea ez da “Hamar Aginduetan” maizegi agertzen den ezaugarria. Dena den, forma horren erabilera erakusten du erronkierazko *Doctrina Uscaz* izenekoak ere (ik. Gómez 1991, 386).

[...]arrena, la[...] [...]gula.
 [...]rena [...]la.

Amarr mandamentu sandu ohec encerr[...]cen dira bidatan, langoycoari gauza gucien gañetic oneritçean: eta gueuren proximo laguna gueuren buruac bezala” (ikus Irigaray 1963, hirugarren argazkia⁶⁶).

Materrearenetik Argaignaratzena geratzen den bezain hurbil gutxienez:

“Lehenbicicoa da, lenco bat dela sinhetsiric hura bera gauça gucien gañetic maíta, ohora eta, cerbitça deçagula.
 Bigarrena arneguric, cñic, edo luramenturic vanoqui eta premia gabe eztaguigula.
 Hirugarrena [gandeac; eta bestac] beguira detçagula.
 Laugarrena gueure burasoac ohora detçagula.
 Bortzgarrena, nihor hil esteçagula.
 Seigarrena, haraguzco obraric ezcontçaz campoan eztaguigula.
 çazpigarrena, deus ebats ezteçagula.
 çortçigarrena, lekhuçotasun falsoric erran ezteçagula.
 Bederatçigarrena, berçeren senharric, edo emasteric desira ezteçagula.
 Hamargarrena, laugaren [sic] ontasanari guticia ezcaquizcola” (Argaignaratz, 103-104).

Jakina, luze joko luke antzekoa den kasuistika guztia zerrendatzeak⁶⁷, baina ikusi denaren arabera, ba bide da euskal lurraldeen

(66) Ulergarritasunari eragozpenik ez jartzeko, letrakera etzanez eskaini dira gureganaino iritsi den orriaren bereizten ez diren hainbat hizki

(67) Pare bat kasu nabarmen baino ez dugu gehituko, izan ere, “Miserikordiazko obrak” direla eta, hurbil baitago Beriainen testua Materrearenetik. Hona hemen hiruzpalau lerro entresaka gisa ateratakoak. Beriainek honela ematen duena: “Lembicicoa da herien visitatçea. Bigarrena gosse denari jatera ematea. Yrugarrena egarri denari edatera ematea. Laugarrena villosiric dagona veztitçea [...]” (Berlain 1626, 87). Materrek honela emana zuen urte batzuk lehenago: “1. Gosse denari latera ematea. 2. Egarrri denari edatera eskentcea [...]. 4. Biluclen bestitcea. 5. Erien [...] visitatçea [...]” (Materre, 1623, 21-22). Berdintsu esan liteke “Arimakoak” edo “Espiritualak” direnei dagokienez. Honela hasten da Beriain: “Lembicicoa eztaquienari eracustea. Bigarrena bearrean dagonari conseju ona ematea [...]” (Berlain, *idem*, 87). Materrek honela zuen idatzita: “1. Eztaquienari eracustea [...]. 3. Beharrean dagoenari consejullu onaren ematea [...]” (Materre, *idem*, 20-21).

ekialdeko aldean nolabaiteko enbor kateketikoa (batzuetan dotrina-txoei bakarrik leiala, bestetan harantzago zihoana) Iparretik nafar erresumaren eliz gune nagusia den hiribururaino iristen dena. Eta hipotesia da enbor horrek aski berandura arte iraun zuela bizirik. Zeren eta bada Materre eta Beriainen testuak handik mende batera ezagutu/erabili bide zituen beste elizgizon bat eta haren lanari buruzko hainbat nabardura agertzeko erabili nahi genituzke azken orrialdeak.

9.- Manuel Larramendi izan zen, Irigarayk berea (1963) idatzi baino bi mende lehenago, Beriainen eta Elizalderen *dotrinak* aldeatzen lehena, 1754an idatzi *Corografiako* alderaketa hark nafarreraren erakusgarri izatea besterik bilatzen ez bazuen ere.

Baina oker ez bagaude, ez Larramendik ez ondokoek ez zuten ahaidetasunik atzeman katixima-egile bien obren artean.

Oro har, Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras* delakoak (1735), Beriainen gaztelaniazko atalean ez bezala (Ikusia dugu bestelakoa dela honen euskarazko bertsioa), ustezko Ripaldarena du antolamendurako eredu. Materia guztia, eta batez ere esku artean darabilgun lehen atalari dagokiona, modu "ortodoxoan" egokitua ematen du, eta, hortaz, harena bezalako ondozkatze zehatza eskaintzen dio irakurleari⁶⁸.

Baina katixima-egileen artean ohikoa zen eredu komun horrek lar adieraziko ez balu ere, desberdina dirudi beste guztian ikusten denak, izan ere, osatze eta antolatze lanak eta hitz eta aditz egokitzatza-

(68) Hots, izenik gabeko Prolegomenoa (ohikoa, baina aberastua), "Cenacea, eta santigoacea" (eta Ripaldarenak ez dakarren otoiz pare: "Alabatu" eta "Berce bat"), "Aita gurea", "Ave Maria", (honen ondoren "Gloria Patri" delakoa falta da), "Credo", "Salvea", "Jangoycoaren legueco Mandamentuac", "Eliza Ama Sanduaren Mandamentuac", "Eliza Ama Sanduaren Sacramentuac", "Articulo Fedescoac", "Obra Misericordiascoac", "Becatu Capitaleac", "Arimaren etsayac", "Iduqui bear ditugun Virtuteac", "Arimaren potenciac", "Sentido Corporalac", "Espiritu Sanduaren Donac", "Espiritu Sanduaren Frutuac", "Blenaventuranzac", "Becatu Venialea", "Gulzonaren azquen finac", "Confesio Generalea", "Contricioa" eta, amaieran, Ripaldak ez dakartzan "Atricioa" eta "Aurrendaco advertencia bat".

pen zenbait kenduta, Elizalderen dotrinak Beriainenaren antza du hainbat eta hainbat arlotan⁶⁹. Are gehiago, Elizaldek eskaintzen duen bertsioak, ez gutxitan, Beriainena aurrean izanik burutua dirudi⁷⁰.

Egia da Elizaldek Beriainek euskaraz ematen ez dituen ohiko atalekin ekiten diola bereari, baina Beriainek dakartzanetara iristen denean, jesuitak zuzen-zuzen hartzen bide dizkio nafarrera-kideari behar beste mallegu. Hori da, adibidez, "aitagurea"-k ematen duen inpresioa⁷¹, eta "agurmaria"-k⁷² eta "Eliza ama sainduaren Aginduak" izenekoe⁷³, "Bekatu beniala barkatzeko gauzak" bezala defini daitekeenak⁷⁴, etab.

(69) Grafari dagokionez, halere, Elizaldek homogeneousago ematen duen arren, ez zaio zalantzarik falta grafemen erabileran (Ikus Salaberri 1994, 14).

(70) Hari horretan, Beriainen katiximari falta zaizkion atalen erredakzioa Elizalderen obrarenetik ere ondoriozta liteke hein batean.

(71) Bitxikeria gehienak berdin agertzen dira testu bietan: ortografia kontuan ("Erreñua" bietan, nahiz eta Elizaldek aurrerago -17 or.- "erreynua" erabiliko duen), laguntzailea aditzari lotuta ("santificabedi", "etorribedi"...), etc. Aldaketarik egiten duenean ere, Elizalde ez doa urrutiegira (Beriainen "gure egun orosco ogula emandraçaguzu egun" jesulagunak "emandazaguzu egu gueuren egunorosco oguia" bezala aurkezten du).

(72) Besteak beste, bietan agurtze-formula bera: "laungoycoac salvaçayçala Maria" (Beriain, 1626, 85) eta "Jangoycoac salvazaizala Maria" (Elizalde, 1735, 5). Bada, halere, "otoyz egulçu" (Beriain, *id.*), "otolz eguinazau" (Elizalde, *id.*) bezalako desberdintasun bakanen bat.

(73) Ez da falta araudi honetan ere Beriainenarekiko desberdintasunik eta Materrenarekiko hurbiltasunik, Elizaldek "Bigarra, urtean bein verere confessazea" dloen tokian (1735, 9), utergarrak "Bigarra urtean beyn gutlanean confessazea" idazten baitu (1626, 89) eta Materrek "Bigarra: Urthean bein bedere cofessa gaitecila" (1623, 9).

(74) Bestelako paralelismoak eta antzak gutxietsi gabe, bitxia da honako pasarte honetan gertatzen dena. Beriainek, eman dion izenburuari jarraiki ("Becatu venialea barçaçenda bedrazi gauza ohen bates"), instrumentala darabil bederatzi gauzen zehaztapenarekin ihardestean: "Lembicicoric Meza devociorequi ençuteas. / Bigarra dignoro começaças. / Yrurgarra laungoycoaren ytça enzuteas / Laurgarra Ypispicuaren bedeycioas...", 94-95 or.). Elizaldek, berriz, sozietiboa aukeratu du mezua adierazteko, betiere izenburuarekin bat eginez ("Becatu Venialea barçacenda bedraci gauza ebe-tatic, edoceinequi", 17 or.). Baina lehenengo "gauzak" berak traizionatzen du jesuita, aski garbi uzten baitu agerian Beriainena (edo harena bezalako beste batena; Materrenena, esaterako -167 or.-) erabili duela berea ontzeko orduan. Hau da, lehenengo "gauza" azaltzean Beriainen instrumentala erabiltzen du eta ez sozietiboa, testuaren logikak behar zuen bezala. Egia da,

Nolanahi dela, ea horrek guztiak Berlainengandik Elizalderengainainoko *tradizio-ierro* argi batez edota *mailegatze* hutsez edota bes-telako formulaz mintzateko zilegitasun nahikorik emango lukeen izango litzateke ondoko galdera. Hain zuzen ere, funtsezko fede-aitorpen ezaguna den "kredoa" delakoari bagagozkio, gauzak ez lirateke hain aratzak. Zeren eta, hainbat eta hainbat arlotan, Elizalderen bertsioak kidetasun gehiago erakusten baltu 1614ko liburuaren azalean aurkitutakoarekin Berlainenarekin baino. Hori da, besteak beste, "[...] nondic etorrico baita ilen, eta vicien juzgazera" perpausaren kasua (6 or.): 1614koak "[...] nondic etorrico bayta [...] bitçien juzgatçe[...]" dioen bitartean (Irigaray 1963, 3. argazkia), Berlainenak (86 or.) "andic etorrico da vicien eta ilen juzgacera" dio eta Zannettorenak "andica etoricoda vicien eta hilen jusgacera" (Mitxelena 1964, 163).; Materrek ere azken hauen formula bezalakoa darabil: "handic ethorrico da hilen eta bicien iulgatcera" (Materre, 4 or.).

Horren guztiaren aurrean, bada, erraz asko planteatzen liteke ea, Berlainenaz gain edo gabe, 1614ko dotrinatxoa izan ote zuen Elizaldek erreferentzia nagusi gisa, hedapen aski zabala izandako testu batez mintza bailitezke agian harako dotrinatxo hark Berlainen formulekin eta Elizalderenekin erakusten dituen kidetasunak.

Edonola ere, testuen arteko kontrasteen hariak ez du ondorioak biribiltzeko leku larregirik uzten, izan ere, Elizalderen "Padeclituzue Poncio Pilatoren manuaren azplan" esaldia bezalakoek (1735, 6) Zannettorenaren ildokoak ballirudikete ("Eta padeclitu çuen Pontio Pilato manuaren azpian") edo, nahi bada, Materrenarenak ("paifatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian"), baina ez Berlainenarenak ("passatuçuen Passio dolorescoa, Poncio Pilato Juezaren azpian") edo 1614koarenak ("passatuçuen [...] dolerezcoa Pilato Juezaren az[...]").

dena den, logika fonetiko behinik behin (esaldiak eskatzen zituen kasu-sintonia eta homofonia) aski asetuta geratzen zaiola belarriari, beste sozlatibo batek ezkatzen baitu perpausoko nagusia izan behar zuen sozlatiboa, aditz jokatu gabeari erantsi behar zitzaiona, alegia. Elizaldek papereratu behar (bide) zuen "Meza enzutearequi devocioarequi" esaldien kakofoniak Berlainen eredurantz makurtu zuen oharkabea, eta, azken batean, "Meza enzuteas devocioarequi" utzi zuen idatzirik.

Hori horrela, eta esku artean izan ditugun hainbat testuren arteko loturak zuzen bezain trinko azaldu zaizkigun arren, agerian da lan-hipotesiek nekez albora dezaketela Iturri (edo "tradizio") anitzen konbergentziaren posibilitatea, alderantziz baizik, zenbaitetan argitasun ez gutxi ekar baitezake baso lahartsu honetara testuak aurreko bertsio desberdinen uztarketaren fruitu gisa kontsideratuzetik abiatzeak.

Bibliografia

- Arana Martija, Jose Antonio, 1986, "Betolazaren *Doctrina Christiana*", (sarre-
ra eta edizio faksimila), *Euskera*XXXI, 505-526.
- Argaignaratz, 1665, *Doctrina Christiana*, in *Devoten Breviariora*, Baiona (orain
Vinsonek 1910ean Chalon-sur-Saone-n argitaratu edizioaren faksimil-
lean: Donostia, 1978, 94-109).
- Berlain, Juan, 1621, *Tratado de como se ha de oyr Missa, escrito en
Romance, y Bascuence*, Iruñea.
- , 1626, *Doctrina Christiana*, Iruñea.
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1869, *Le petit Catéchisme espagnol du P. Astete
traduit en trois dialectes basques: 1. aezcoan [...]; 2. salazarais [...]; 3.
roncalais [...]*, Londres.
- Elizalde, Francisco, 1735, *Apezendaco doctrina christiana uscaras*, Iruñea
(jatorrizko edizioaren faksimila in *FLV* 65, 1994, 41-65 or.).
- Etxabe, Baltasar, 1607, *Discursos de la antigüedad de la lengua cantabra
Bascongada*, Mexiko.
- Etxepare, Bernard, 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele.
- Gómez, Rikardo, 1991, "Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa
eta azterketa", in J. A. Lakarra (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri
Sacrum, Pars Prior*, Donostia, 375-426.
- Goñi Gaztambide, José, 1995, "Sancho de Elso y su Catecismo bilingüe:
nuevos datos", *FLV* 68, 7-21.
- Irigaray, Angel, 1963, "¿Se trata de la Doctrina de Sancho de Elso?",
Príncipe de Viana 92-93, 249-253.
- Jimeno Jurjo, José María, 1988, "Juan de Berlain, escritor vasco de Navarra
(Uterga, c. 1566-1633)", *FLV* 52, 1988, 241-265.
- , 1997, *Navarra. Historia del euskera*, Tafalla.
- Julia, Dominique, 1997: 1998, "Lecturas y Contrarreforma", in G. Cavallo
eta R. Chartier: *Historia de la lectura en el mundo occidental*, Madril,
367-412.

- Kapanaga (= M. Ochoa de Capanaga), *Exposición breve de la Doctrina Christiana*, Bilbo, 1656.
- Kardaberaz, Agustín, c. 1760: 1974, *Cristiñau Doctrinea* (in *Obras Completas de Agustín de Kardaberaz*, I. tomoa, Bilbo, 397-455).
- , c. 1762: 1974, *Christauaren Doctrina* (in *Obras Completas de Agustín de Kardaberaz*, I. tomoa, Bilbo, 457-478).
- Lakarra, Joseba Andoni, 1986, "Burgosko 1747ko dotrina: I. Testua eta Oharrak", *ASJU* XX-2, 535-594.
- Leizarraga, Joanes, 1571: 1990, *ABC, edo Christinoen instruccioea othoitz eguite formarequin*, Larrotxela (orain Leizarragaren obra guztiak biltzen dituen edizioa: *Jesus Christ Gure launaren Testamentu Berria...*, Bilbo).
- Materre, Estebe, 1623, *Doctrina Christiana*, Bordele.
- Mitxelena, Luls, 1955: 1988, "La Doctrina Christiana de Betolaza (1596)", *ASJULL*, 43-60; orain L. Michelena: *Sobre historia de la lengua vasca*, Donostia, 824-837.
- , 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Madril.
- , 1964, *Textos arcaicos vascos*, Madril.
- Oroz, Francisco J., 1980, "Vicisitudes de un Padrenuestro en vasco en el siglo XVII", *ASJU* 14, 1-23.
- Rementeria, J. M., 1975, "Euskal Kristau Ikasbideeen historia laburra", in Nimegako Katekesi Institutua: *Kristau Bidea*, Arantzazu, xvii-xxv.
- Resines, Luis, 1987, "Valoración catequética de la Doctrina Christiana de Juan Pérez de Betolaza", *BAP* XLIV-3/4, 533-542.
- , 1997, *La catequesis en España. Historia y textos*, Madril.
- Salaberri Muñoa, Patxi, 2004, "A. Kardaberaz eta J. A. Mogel: literatur bizkaieraren lehen uneak testuen argitan", *Egan* LVI-1/2: 89-107.
- , prentsan, "Labalenek eta Zannetok XVII. mendean argitaratu formulen kariatara", in I. Laka eta B. Fernandez: *Andolin Eguzkitzaren omenez*.
- Salaberri Zaratlegi, Patxi, 1994, "Elizalderen Apezendaco doctrina christiana uscaras", *FLV* 65, 7-38.
- Sarasola, Ibon, 1983, "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU* XVII, 69-212.
- Satrústegi, José María, 1990, "Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI", *FLV* 55, 37-47.
- , 1990, "El Credo en versión vasca del s. XVI", *FLV* 56, 205-228.
- , 1991, "El Avemaría y la Salve en un documento vasco del s. XVI", *FLV* 57, 107-129.